

Leopoldo Etxeberria gogoratu

Joseba Intxausti

Orain zenbait hilabete (1981-azaroa-18) hil zitzaigun Leopoldo Etxeberria Unanue (1942-1981). Hila da, ba, «Anatsan». Hobe beharrez eta bapateko oroito har labur eta eskas batetik ihesi, gaur arte ez dugu heriotze mingarri horren albisterik jaso gure aldizkarian. Atzerapen eta guzti, barru-barrutik hunkitu ninduen adiskide eta euskaltzale eredu haren bizitza trinkoaren oroigarri bat ekarri nahi nioke irakurleari orrialde hauetara. Zailtzarik gabe berezitasun apartekoak izan zituen Leo-ren bizitza, eta guztiontzat eredugarri izateraino, esango nuke nik.

Euskaltzale honek Euskal Herriko eskualde batean utzi duen urratsa handia izan da, betea. Behin baino gehiagotan Rikardo Arregi gogora ekarri izan dit Leo-k, bere euskaltzaletasun langileagatik. Biek, laiko eta herritar soil bezala ekin zioten euskal lanari, herikideen euskal ekintzak sustatu eta bideratu. Belaunaldi berberetakoak dira: 1960aren inguruan hasita, urte gutxitara indarreanagotu zen olatu gaztean agertu zen Leo. Rikardo bezalaxe, garaiz ere.

Baina bien arteko aldeak ere gogoratzekoak dira: Rikardo-k, lehen pausoak Donostiako Seminarioan eman zituen; Ikastetxe horretan zituen erroak. Bere lana euskal ikasle gazteen tartean eman zuen Rikardo-k, eta haren erakarmena ezaguna izan zen. Beharbeda, karisma pertsonal horretan ez da Leo hain distiratsua izan, edo ez da bederen gisa berekoa gertatu: honen dohaiak bestelakoak izan dira.

Autodidakta hutsa zen, Unibertsitate eta Seminariorik ga-bea: autoikasle apala, baina oso argia eta zentzuz betea. Txundituta uzten zuten normahi haren jakin-minak, jakitateak eta itxurakeriarik gabeko apaltasunak. Lehen-lehenik eskulaneke langilea izan da Leo: langileen artean hasi eta hezi zen; euskaltzaletu ere langileen artean zebilela euskaltzaletu zen. Sindikalismoan eta kooperatiba-munduan eman du Leo-k bere bizitza. Haren euskaltzaletasuna hortik zetorren eta hortxe eman zen.

Leo Etxeberriak gainera, beste zerbait berezia ere izan du bere lanetan: jatorrizko eskualdera, Urolaldera alegia, zuzendua izan da Leo-ren egiteko. Egia da muga horiei ere gaina hartu zirela, han eta hemen hainbat hitzaldi emanaz, baina *berea* Azpeitia zen, Azpeitia eta ingurua. Hurbileko errealtate helkorrak inoiz sortu ohi digun iguina ez zuen ezagutu: atxekimendu osoz besarkatu zuen suertatu zitzaion ingurua, nahiz eta aldakuntza handiak bultzatzeko asmoz izan onarpen hori. Maitatzen zuena guztiz hobetu nahi zuen. Nolabait esateko, geografia zabalean baino gizartearen sakontasun-bila egin zuen lan gure gizonak. izpiritu leial, kezkatu, ezdogmatiko eta liberal batez; baina, hori bai, bere azken xedeak non zituen ongi zekiela beti ere. Euskal Herri osoaren zerbitzutan ihardun zuen bere jaioterritik.

Azpeitiko herriak hilondoko omenaldi bat eskaini zion Leo-ri (1982-otsaila-6). Omenaldi horretarako bildutako hainbat albisteri eman nahi nioke hemen leku. Geroztik, haren alarguntsa Inaxi Bereziartua eta lagunei esker, beste xehetasunik ere jaso dut. Besterik ezinean, guztiotatik laburbilketa mugatu bat eman go zaio irakurleari, ba, lerro hauetan.

ELAko sindikalista

Langilegoaren barnean hasi zituen L. Etxeberriak bere lana eta trebakuntza. Lehenik Elizaren langile-mogimenduetan (JOCen bereziki). JOC-isten artean euskal zentzu bat txertatu nahi izan zuen berehala. 1960ko hamarkadaren hastapenetan gaude. Elizatar ekintza progresista bat zen hura Leo-rentzat. Handik hasita, laster bilatuko zuen beste irtenbiderik: 1964-65etan ELAra jo zuen, eta 1968an barneko etena etorri zenean (eladioena, alegia) ELA ofizialari segi zion. 1974eko krisian, berriz, ELAren sindikatutasuna hobetsiko zuen.

Sindikalismo librearen alde borrokatu zen, frankismoaren legeriak eta orduko egoera sindikalaren zirrikitoetatik askatasun

horretarako lehiatila berriak irekitzen ahaleginduz. Konbenio kolektibo aldeko lanari gogoz heldu zion, langilegoaren ordezkaritzak hobetuz eta lan-baldintzak samurtzen saiatuz.

Ekintzale bezain ikastzale izan zen Leo urte haietan: Langile-mogimenduen historiaz biziki arduratu zen. Lantegietako ahaleginetan, Sindikatuko zereginetan eta bere gisarako edo taldeko ikasketetan jasotakoak, eta betidanik indartuz zekarren euskal jakiteak lagundu zioten ELAren III. Kongresuan (Euba-Eibar 1976) bere ekarkinak eskaintzen.

Kooperatibista

Arrasatearren kooperatiba-mundua ezagutu ala, berak ere lehiatsu parte hartu zuen mogimendu gazte honetan, eta laster bilakatu zen eragile lantegiko lagunen artean, denen arteko ideiak berritu eta kanpokoekin zubiak egiten. Lanbide berri honetan, Leo-ren dohain pertsonalek egiteko on bat bete zuten: etenik gabeko zerbitzu-grina zuen, lanerako gaitasun aparta, hobe-kuntz gogo hasekaitza, dio lagun batek.

Laster hartu zituen bere gain lantegian egin behar ziren euskal itzulpenen lanak. Lantegiko erantzukizunei aurpegi emateko buru-belarri saiatu zen ikaskizun berriak eskuratzen. Haren prestakuntza nondik zetorren jakirik euskaltzaleok Leorengan batez ere euskal historiaz ikasi zituenak miresten genituen: baina haren lantegi-lagunek miresgarria aurkitzen ziotena beste zerbait izan zen: «Cómo una persona que en su juventud no ha tenido oportunidades de estudio, ha podido llegar a poseer el nivel cultural y empresarial que dominaba» (J. Martínez).

Kooperatibara sartu eta hilabete gutxi barru Batzorde Zuzendaritara eraman zuten lagunek (1974), Lagun Aroko zuzendaritzara iristen zelarik. Eginkizun hauek eman zioten eskarmentuaren ondoren «Urolaldean gizarte-arazoetarako lagunik jantzi» gertatu zen.

Dirudienez, C.O.M. Kooperatibara pasatzerakoan (1974), Leo sindikalista borrokalaria izateak nahiko kezkatu zituen hura onartu behar zuten lagun batzuk. Barruan izan orduko egin zion toki euskarari, urteroko Memorian eta Biltzarrean azalpenak euskaraz ere emanaz.

Ahal izan zuen bezain laster, orduko lantegi-barneko giroari bekoki eman zion oso eztabaidatua zen beste arazo bate-

tan: LKAren kooperatiba-sarearekin lotzearen komenentziaz galdetu zien, berriz ere, Leo-k lagunei (1975). Garrazki erabilitako gaia zen hau lantegian, mesfidantza handiak sortzen zituena eta ozpinduta zegoen arazoa. Hilabete batzuetan lortu zuen, pausoz pauso, C.O.M. lantegia LKAaren inguruko kooperatiba-Elkartera sartzea (onarpena, 1979).

Euskal lantegi hauen arteko egitura berriak zabaldu eta indartu nahiez eta, oraingoan, Urolaldeko bere bailaran ere elkarrekin hori bultzatzeko Urkide sortu zen (1980). Leoren partaidetza eta gogoia ezagunak izan ziren bide berri hauek urraiztean: bera izan zen Urkideren Lehendakaria ere.

Euskaltzalea. Idazlea

Eta ibiliaren ibiliz, hamaikatxo irakurketen eraginez, langile-munduan bizi zen gizon honi hizkuntz eta kultur balioen kontzientzia argitu zitzaion. Gizakizun horietaz arduraturik hiru axola nagusitan bildu zuen bere egitarau: 1) Ikastolaren eraikuntza, 2) Hizkuntzaren indarberritzea, 3) Euskal Historiaren zabalkundea.

Ikastola eraikitzen. Bailarako kultur elkarteetan gogoz parte hartu zuen Etxeberriak: gizarteko gizona zen, eginean eta eraginean ahalegintzen zen, bere liburu-gelatxoan ikasi eta ikasi ito gabe. Haren arrastoa hainbat eginkizun berritan urratu zen. Kultur Asteak, Hitzaldiak, Alfabetatze jaio berria... dena zen aitzakia ederra jendea jakitez jantziagotzeko, euskarari gizar-tean gaitasun berriak txertatzeko. Baina inguruak eskaintzen zizkion, edo inguru horrentzat premiazkoak izan zitezkeen tresnetatik maiteena eta baliagarriena ikastola izan zen.

Ikastolaren hazkunde-ordu malkartsuetan egokitu zitzaion, eraikuntza hari bide berriak irekitzea, horretarako leuari heldu behar izan zionean, ausarki heldu zion bere egitekoari zaputuz egin gabe. «Ez zen Leo bere lanean kokildu edo inoiz atzeratu», dio Ikastola-lanetan haren ondoan ihardundako batek.

«Euskararen bizitzaz eta zabaltzeaz asko kezkatzen zen eta Ikastoletan ikusten zuen hortarako biderik egokiena» (E. Larrañaga). Ikastola-ingurura bildu izan nahi zituen bera bizi zen gizarteko indarririk onenak: gurasoak, eliztarrak, Udala, Herria...

1975-78. urteetan izan zen Ikastolaren Lehendakari. Garai honetakoa da hainbat saioaldi berri: Arautegi berria moldatu

zen; bailarako «Izarraizpe» Irakaskuntzarako kooperatiba sortu; Ikastolako langileen egoera normaldu; Azkoitiko Ikastolari ere eman zion bere bultzada, eta berehala hasi zen Urolako Mankomunitatearekiko lehenen harremanak lantzen; Ikastolak egotza berria behar zuela ikusirik, inguruko erlijiosoen ikastetxeekin elkarrizketan hasi zen, irtenbide baten bila.

Jendarterako dohain aparta zuenez, harek parte hartu zituen bilerak kontaezinak dira, eta guztietan nabarmena zen gure gizonaren eragina: «Bultzagile eta suspertzaile zen. Ingurua bere asmo biziz betetzen zuen».

Euskara lantzen, euskara zabaltzen. Kooperatiba, lanari duintasun berri bat bilatzeko tresnatzat zeukan bezala, Ikastola ere beste *tresna bat* zen Leo-rentzat: gure herriaren nortasun-berezkarririk handiena, hizkuntza alegia, aintzina ateratzeko zen Ikastola. Haren ekintza sozialean ez-ezik, etxe-barneko lan-ordu isiletan ere euskarak lekurik handiena izan zuen Leo-ren bizitzan.

Leo garbizalea zen; baina ez asmakizunetan sartuko zen garbizalea, herriak bere baitan bizirik zituen hitz eta esaerak arretatsu jasotzen zituen garbizalea baizik. Azpeitiko euskara arduraz ikasi eta aztertu zuen, bere ondoan zeukan hizkuntzaz osorik jabetu nahi zuelako. Bere gisara, eta Alfabetatzearen inguruan erosotasun hobeak aurkitu zituenean, klasikoei heldu zien bihotz beroz. Garai batean iluntzero eman zen Axularren irakurketara, zenbait pasarte buruz ikasteraino; bakarrik, bere kontura, eta taldean ere bai lan handia egin zuen hone-tan. Oso maiteak zituen Lizardi eta Orixe; estimurik onena zien bertsoari, baina nahiko kritiko ere agertzen zen inoiz (Amuriza zuen maiteena). Azken gaixoaldiko une larrietan begiak itxi eta gozokiro dastatzen zituen Aranaldek belarrira jaulkitzen zizkion Lizardiren olerkiak.

Euskaltzaindiaren lanari itzalik handiena izan zion. Batasunerako bideak ezagutu eta gizartean zabaltzen ihardun zuen (Ikastolan, Kultur Asteetan, etab.). Batasun-arazoa Ikastolan bototara eraman zenean, txitean pitean, konturatu ere egin gabe, bera izan zen aldekoen arrazoirik onenak bildu zizkiena (lagunik onenak kooperatibazaleen artean aurkituz, eta kontrakorik gogorrenak geroko bere hauteskunde-lagun batzuen artean zituelarik...).

Ildo horretatik, Euskaltzaindiko zenbait lagunek hitzaldi-sail bat eman zuten Azpeitian (1972), batasunaren eztabaida gor-

dinena zen unean. Leo zen antolatzaileetako bat eta hizlarien aurkeztailea. Ez dago, beraz, esan beharrik ere, Euskal Herri osoaren batasunerako lanabesik egokiena bezala ikusten zuela Etxeberriak hizkuntzaren batasuna.

Ez herriko hizkuntzetan, ez hizkuntz eztabaidetan galdu edo agortu zen Leo. Aipatu beharrekoa da haren kazetari-lana. Ekin-tza-gizonaren baitan luma-gizona ere bazuen Leok beregan. *Zeruko Argia*-n eman zuen bere lanik handiena; asterokoaren orrietan halako ohizkotasuna irabazi zuen, azkenik, «Anatsan»-ek. Hortixe ezagutu genuen euskaltzale gehienok Leo Etxeberria. Luma zaindua zuen, aberatsa, zabarkeria guztietatik ihes egiten zuena.

Euskal prentsarekiko haren lankidetzak ez zen, ordea, artikulugintzara mugatu; asterokoaren barne-antolamendua berritu nahi izan zenean (1972?), lagunak deiari erantzunez idaz-elkar-tean sartu zen, asteoro Donostiarako joan-etorria beteaz. Geroxeago, *Zeruko Argiaren* barneko lagunartea berriz ere aldatu zenean, *Deia*-ri eskaini zion bere lankidetzak.

Irakurle eta ikasle bezala topatutako aberastasunak, maite zuen herriari eman nahi zizkion, beti bizi-bizirik agertu zuen zerbitzu-gogoak zirikatuta. Euskara indartzeko eta herritarren kontzientziak argitzeko, Alfabetatze-mogimenduan sartu zen, ikastaroetarako euskal irakaskizun ugari prestatuz, eta ikasle eta irakasleei emanez. Horretarako, ordea, landutako euskaraz gain beste zerbaitek behar zuen, eta herriaren gaurko orainalditik iraganaldietara zuzendu zuen bere begirada, gure nortasun nazionalaren bila. Azterkizun bezala, euskal Historia aukeratu zuen.

Historilaria

Badirudi, Leo-k hiru pilare nagusi ikusten zituela euskal nortasunaren euskarri bezala: Hizkuntza, Historia, Instituzioak. Beste berezkarriak ukatu gabe, lehenengo bien alde eman zituen bere izerdirik ugarienak.

Euskal *herria* maite zuen Leo-k, herri xumea eta apala, mende mende izenik gabe iragan ohi dena. Horrengan bilatu zuen Etxeberriak euskal historia; horregatik, *historia sozialaz* arduratu zen bereziki. Horretarako, ordea, inongo unibertsitatara joan gabe, bere herritar batengan idoro zuen ereduak: Ildefonso Gu-

rrutzaga azpeitiar erbesteratua zuen maisua. Ildefontsok bezalaxe, Leo-k ere Euskal Herriko eta, hurbilago oraindik, Azpeitiko errebolta sozialak aztertu zituen. Bere gizarte-ekintzan (sindikatuan, kooperatiban) langileen askatasunaren alde ihardun zuen bezalatsu, Historia aztertzean ere jende langilearen askatasun-ahaleginez arduratu zen.

Bere liburutegiaz gainera, jakiten eta ikerketan lagun zezaiketen zenbaitekin saiatu zen harremanik onenak korapilatzen. Oso gogokoa zuen Gurrutzaga, eta Donibane Lohitzunen ikus-tatu ohi zuen; Loiolan, berriz, Aita Egillor, Artxibategiaren arduraduna, bidaide izan zuen, Artxibategian ezezik, Euskal Herriko zoko historiko jakingarrienak ongi ezagutzeko ibilaldietan. Baina, Euskal Herria nahiko ibilia zuenez, inguruetako lurraldetara zabaltzen hasia zen: azkenekoz, elkar ikusi genuenean, San Pedro de Cardeña-n izan zen, hain zuzen. Bidaia hauetik, geratu da haren paperetan lekukorik franko.

Euskaltzaleontzat, ordea, haren bidaldirik probetxuzkoenak, hitzalditarako eginak dira, noski. 1968. ingurutik aurrera euskal historiaren irakasle bezala ihardun zuen Leo-k, herrieta-ko Kultur Asteetan eta Alfabetatze-ihardunaldietan bere mintzaldiak emanez. Betetako lan honen albiste zehatza haren paperetan eta egunkarian ikusi beharko litzateke.

Herriko gizona

Azpeitiarra zen Leopoldo, oso herriko semea. Maite zuen jaioterria, maite zituen herritarrak. Azpeitia hobeago bat nahi zuen. Horregatik, haren artxibategian ikus daitekeenez, sona handiko herriko semerik prestuenen albisteak arretaz jasotzen zituen: Julian Elortza, Ildefontso Gurrutzaga, Karmelo Etxegarai, Jose Artetxe... Eredu pertsonaltzat zeuzkala esango luke batek. Berdin, Azpeitiko herriaren unerik jakingarrienak azter-tzen saiatu zen (matxinadak batez ere).

Jaioterriarekiko kezka hauek eguneratuz, azken aldiko po-litika-berrikuntzan zuzenean parte hartu zuen. Hauteskunde au-rreko mitinetan zabaldu zituen bere ideiak, eta utzi dituen paperetan dago zenbait idazlan. Udaletxerako hautatua izan zenean, Azpeitiko euskal plangintzari lehiaz ekin zion, urtetako lanaren ondorio umotu bezala, «Udaletxearen Kultur Sailerako Egitamu» bat prestatuz.

Alderdi politikoan artean beti gorde zuen halako urruntasun garbi eta leial bat, beti ere aurrerazale eta ekintzale bortitza agertuz, eta inongo alderdirekin osorik uztartu gabe, guztiekiko errespetoa gordez eta herriari bere osotasunean zerbitzua eskainiz.

* * *

Joan zaigu Leopoldo Etxeberria, ustez urtetarako euskaltzale langilea izango genuena. Gutxi dira honelakoak, eta batzutan gazterik joaten zaizkigu (lehenago Lizardi, Loramendi, Lauaxeta; geroago R. Arregi, G. Aresti...): harek ereindako haziak izango ahal du, Urolaldean, berriz ere uzta onik!

J. I.